# Agenda Euskadi Basque Country 2030

## Maila anitzekoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Bilbao

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

# AURKIBIDEA


Agenda Euskadi
Basque Country
2030
Maila anitzekoa
1. GJH
8. orrialdea
2. GJH
13. orrialdea
3. GJH
17. orrialdea
4.GJH
20. orrialdea
5. GJH
24. orrialdea
6.GJH
29. orrialdea
7. GJH
31. orrialdea
8. GJH
33. orrialdea
9. GJH
37. orrialdea
10 GJH
43. orrialdea
11. GJH
49. orrialdea
12. GJH
56. orrialdea
13. GJH
61. orrialdea
14. GJH
65. orrialdea
15. GJH
67. orrialdea
16. GJH
70. orrialdea
17. GJH
74. orrialdea

## SARRERA

2030 Agendak, 2015eko irailean Nazio Batuen Erakundearen barruan onartuak, tresna bat izan nahi du giza garapen jasangarriaren alde borroka egiteko gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren arloetan. Ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzaile bat da. «Gure mundua eraldatzen: 2030 Agenda garapen jasangarrirako» izenburupean 17 helburu definitzen dira, Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) izenekoak, eta 169 xede.

2030 Agenda nazioarteko agenda berri bat da herrialde guztientzat eta pertsona guztientzat. Bere bitartez aitortu egiten da garapen-premiak berak direla pertsona guztientzat, haien bizilekua edozein izanda ere, bai orain, bai etorkizuneko belaunaldientzat.

Lurralde bakoitzak egin behar du bide hori bere zirkunstantziak kontuan hartuta. Hori da 2030 Agendaren ezaugarri bereizgarrietako bat, lurralde-dimentsioa sustatzeko hartua duen konpromisoa, bai Nazio Batuetan bai Europako Batzordean aintzatetsi bezala.

Agendaren definizioaren fasetik bi Erakunde horiek garrantzi handia eman diote gobernu azpiestatalek eta tokikoek betetzen duten zereginari 2030 Agenda ezartzeko garaian, kasu ugaritan, Euskadin besteak beste, geuk ditugulako konpetentziak, baliabideak eta gizartearengandik gertuen dauden errealitateen eta premien ezagutza espezifikoa.

Ahaleginak lerrokatzea, 2030 Agendak zehazten dituen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta helmugak gauzatze aldera, Euskadik konpromiso irmoa hartua duen erronketako bat da. 2030 Agendak Administrazioko maila guztietan eskaintzen du hizkuntza komun bat gure politika publikoak hobetzeko. Eta, gainera, animatu egiten gaitu gehitzera maila anitzeko gobernantzaren logika eta gobernu-maila bakoitzak dituen erantzukizunekiko errespetua.

Hala, espiritu horrekin adostu du Kanpo Harremanetarako Erakunde arteko Batzordeak lan-prozesu bati ekitea, Euskadi Basque Country 2030 Maila Anitzeko Agenda definitu eta sortzera bideratua; herrialde-agenda egituratu bat, erakundeen arteko lankidetzatik, instituzio bakoitzak bere Agenda 2030 definitzeko konpromisoan.

## BATERA SORTZEA

Ez da lan erraza izan, ez balitz instituzio partaide guztien jarreragatik eta talde-lanean aritzeko gogoagatik politika publikoen baterako sortze-prozesu batean, kontuan hartuta erabat berritzailea dela eta hemen jasotzen dena ekarri duela emaitzatzat.

Bi urtez, Erakunde arteko Lan Talde Operatibo batek, Eusko Jaurlaritzak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, eta Bilboko, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko Udalek osatuak, modu koordinatu batean jardun duten lanean, beren Agendetatik abiatuta, 2030 Agenda komun bat sortzeko, lurralde bakoitzaren idiosinkrasiatik eta berezitasunetatik abiatuta, eta identifikatuz non elkartzen garen 2030 Agendan eta non egiten dizkiogun baterako ekarpenak.

## PROZESUA

| | |
|---|---|
| **2017** | Ekimen honetara elkartzeko premiari buruz euskal erakunde guztiak informatzen eta sentsibilizatzen oinarritua. |
| **2018** | Prozesuaren bultzada. |
| apirila-urria | Banako bileren aldia erakunde partaide bakoitzarekin, bakoitzak egindako bidea eta lortutako emaitzak ezagutzearren. |
| urria | Erakunde arteko Lan Talde Operatiboa martxan jartzea, erakunde bakoitzeko gaiaren arduradun politikoez eta teknikoez osatua. Haiek aldizkako bilerak egin dituzte modu koordinatu eta eraginkor batean baterako dokumentu baten bilaketa-lanean aurrera egiteko. |
| **2019-2020** | Banako 40 bileraren eta Lan Talde Operatiboaren 6 saioren ondoren, azken dokumentuaren diseinuarekin eta konfigurazioarekin ixten da prozesua. |

## EGITURA

Dokumentu honen egitura definitzeko abiapuntutzat hartu diren irizpideak hauek dira:

- Euskadi Basque Country 2030 Maila Anitzeko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) definitzea, maila anitzeko gobernantzatik planteatu eta burutu diren xedeetan eta ekintzetan oinarrituta.
- Banako helmugak eta ekintzak baztertzea, norbere ikuspegiak saihesteko eta baterako kontakizun bat eraikitzeko.
- Nazio Batuen 2030 Agendaren egituratik eta 17 GJHak egituratzen dituzten 169 xedeetatik abiatuta, egitura honetara egokitzea: 17 GJH, 50 xede, erreferentziazko 204 dokumentu eta garrantzizko 258 ekintza, Euskadi Basque Country 2030 Maila Anitzeko Agendaren corpusa eratzen dutenak. Proiekzio hori bi euskal erakundek edo gehiagok parte hartzen duten xedeen prospekziotik eta lokalizaziotik abiatuta ezartzen da.

Agenda Euskadi Basque Country 2030

Maila anitzekoa

Euskadi Basque Country-k aukera du eredu bat izateko, ikus dadin lurralde txiki batek nola lagun dezakeen 2030 Agenda ezartzen nazioarteko testuinguruaren barruan, bere konpetentziak erabiltzean eta borondate politiko erabakigarri batekin, Giza Garapen Jasangarriarekin hartua duen konpromisoa eta gure ondorengoentzat mundu hobeago bat uzteko duen nahia erakutsiz.




## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Bilbao

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

**50**
HELMUGAK

**204**
PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

**258**
EKINTZAK

# 1. HELBURUA

## Pobrezia mota guztiak desagertzea mundu osoan

4
HELMUGAK

24
PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

19
EKINTZAK

**1. helmuga:**
Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.

**2. helmuga:**
Gizarte-larrialdiko Laguntzak bermatzea.

**3. helmuga:**
Etxerik gabeko pertsonei arreta ematea.

**4. helmuga:**
Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema irmotzea eta indartzea.

## 1. HELMUGA

**Pobrezia-egoerei erantzutea eta gizarte-laguntzen eraginkortasuna hobetzea, gizarteratzearen alde eta gizarte-bazterketako egoeren kronifikazioa eragotziz.**

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava foru aldundia diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- 2017-2021 Gizarteratzeko IV. Euskal Plana.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019.
- 2018-2022rako Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntza emateko Erakundeen arteko Plana.
- Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Euskal Plana.
- Etxerik gabeko Pertsonen Euskal Estrategia 2018-2021.
- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Sustapen Estrategia.
- 185/2015 DEKRETUA, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- Enplegu Plan Berezia, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bazterketa-arriskuan dauden gazteak helduaroko bizitzara errazago igaro daitezen laguntzeko Estrategia, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Elkar-EKIN Gizarteratze Plana 2016-2020, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Bilboko Udaleko Gizarte Politiken aldeko Ituna.
- Bilboko Udaleko Garapenerako Lankidetzarako III. Plan Zuzentzailea 2016-2020.
- Donostiako Udaleko Lankidetzako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako Plan Zuzendaria 2017-2019.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa 2016-2019.
- Vitoria-Gasteizko Udal Prestazio Ekonomikoen Programa arautzen duen Ordenantza.
- Haur eta Nerabeentzako Gasteizko II. Udal Plana 2018-2022.

## EKINTZAK

**1.1.** Udalerrien eta aldundien artean lankidetzan aritzea, gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran dauden kolektibo espezifikoak gizarteratzeko eta laguntzeko baliabideak sortzearren (babes-dispositiboetatik irteten diren adingabeak, gizarte-bazterketa egoeran dauden adindunak…).

**1.2.** Hileko prestazio ekonomikoa ematea behar adina baliabide ez duten pertsonen eta familien oinarrizko premiei erantzuteko, lan-munduan aukera bat aurkitzen lagunduko diena – Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE).

**1.3.** Udal gizarte-prestazioak, gizartean pobrezia- eta premia-egoeretan dauden pertsonei eta familiei zuzenduak. Haurren pobreziaren aurkako ekintzak. Ekitatea indartzea haurrei, nerabeei eta haien familiei zuzendutako jarduereta n.

**1.4.** Enplegutik urrunduta dauden kolektiboen enplegagarritasun-politika bat ezartzea, udal gizarte-zerbitzuetan arreta emanda, enplegurako eta gizarteratzeko haien aukerak zabaltzearren. Gizarteratzeko eta laneratzeko programa pertsona kalteberentzat eta/edo gizarteratzeko zailtasun bereziak dituztenentzat. Plaza gehiago enplegagarritasun-tailerretan.

**1.5.** Gizarteratzeko Interbentzio Programa, “Gizarteratu”, gizartean marjinazio- eta bazterketa-arazoak dituzten pertsonak eta kolektiboak gizarteratzea sustatzeko: prestakuntza-moduluak, gizartearen eta hezkuntzaren eremuko tailerrak…

**1.6.** Esperientzia pilotuak desazelerazio-egoerak prebenitzeko eskola-absentismo tasa altuak dituzten eremuetan.

## 2. HELMUGA

**Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatzea.**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Saileko Gizarte Larrialdiko Laguntzei buruzkoa.
- Bilboko Udaleko Gizarte Politiken aldeko Ituna.
- Donostiako Udaleko Gizarteratzearen aldeko Hiri Ituna (proiektuan).
- Donostiako Udaleko Gizarteratze Plana (proiektuan).
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa.

## EKINTZAK

**2.1.** Diru-laguntzen eskaera guztiei erantzutea Gizarte Larrialdiko Laguntzak emanez, tramitatuz eta kudeatuz, ondokoak estaltzeko: alokairua, etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko gastuak, energia-gastuak pobrezia energetikoaren aurka borroka egiteko, oinarrizko bizigarritasun- eta ekipamendu-gastuak, Osasun Zerbitzu Publikotik erantzuten ez zaien oinarrizko premietarako gastuak eta aurreko zorpetze-gastuak.

**2.2.** Aldundien aldetik Gizarte Larrialdiko Laguntzen kudeaketa eta justifikazioa, gizarte-larrialdiko premiei aurre egiteko adina ahalmen ekonomikorik eta pertsonalik ez duten udalerrientzat.

**2.3.** Eguneko 24 orduko koordinazio-zerbitzuak ezartzea gizarte-larrialdiko egoerei berehala erantzuteko.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

**3. HELMUGA**

## Etxerik gabeko pertsonei arreta ematea.

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia 2018-2021.
- Etxerik gabeko Pertsonen Euskal Estrategiarako Erakunde arteko Akordioa.
- Bilboko Udaleko Gizarte Politiken aldeko Ituna.
- Donostiako Udal Etxebizitza Plana.

**EKINTZAK**

**3.1.** Euskadiko etxerik gabeko pertsonen kontrol- eta jarraipen-txostenak eta bi urtean behingo jardunaldiak arazoa arintzeko neurriak proposatzeko, Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren barruan.

**3.2.** Babeseko etxebizitzaren eta etxebizitzaren udal programak, gizarte-bazterketa egoeran dauden gazte immigranteentzat, kolektibo ahulenei etxebizitzarako sarbidea errazteko: gizarte-alojamenduetako plazak gehitzea eta etxebizitza publikorako sarbidea hobetzea; udal babes publikoko alokairuko egoitza-sistemako baliabideak bideratzea etxebizitzarik gabe egoteko arrisku berezian dauden kolektiboetara; alokairuko etxebizitzak adjudikatzeko prozedurak berrikustea eta arreta berezia jartzea genero-ikuspegian; Etxegintzarekin eta Etxebiderekin lankidetzan aritzea bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako etxebizitza-aukeretan aurrera egiteko.

**3.3.** Etxebizitzaren ezarpen eta ekipamendu egokirako ekintzak, eta gaua igarotzeko, mantenurako eta higiene pertsonalerako oinarrizko prestazioak.

**3.4.** Udal harrera-baliabideak: babeseko etxebizitza-programa, harrera-programa gizarte-larrialdiko egoerei erantzuteko, eguneko zentroa, gaueko zentroa, gizarte-harrerako udal zentroa.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

**4. HELMUGA**

## Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema irmotzea eta indartzea.

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2020.
- 185/2015 DEKRETUA, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- 2017-2021 Gizarteratzeko IV. Euskal Plana.
- Bilboko Udaleko Gizarte Politiken aldeko Ituna.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Politiken Sailaren Plan Estrategikoa 2016-2019.

**EKINTZAK**

**4.1.** Adostasuna zabaltzeko gizarte-itun bat sustatzea finantzazioa irmotzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko.

**4.2.** Eusko Jaurlaritzaren eta hiru foru aldundien aldetik finantzazioa ematea Prestazioen eta Zerbitzuen Euskal Zorroan zerbitzu berriak garatzeko funts baterako, udalari dagozkion gizarte-zerbitzuekin lotutako proiektuak bultzatzearren.

**4.3.** Erakundeen artean lankidetzan aritzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Legea garatzeko, gizarte-laguntzak behar bezala erabiltzen direla bermatuz, premia handiena duten pertsonengana iris daitezen.

**4.4.** Enplegagarritasun-egoera zailean dauden pertsonentzako arreta optimizatzea Gizarte Zerbitzuen eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez.

**4.5.** Eskura dagoen informazio kualitatiboa eta kuantitatiboa biltzea dauden gizarte-premiei eta -baliabideei buruz, herritarren helmenean jartzeko.

**4.6.** Gizarte-ekintzako eskualde-zentro integralaren proiektu pilotua Bizkaian.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# 2. HELBURUA



## Gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

**3**
HELMUGAK

**7**
PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

**15**
EKINTZAK

**5. helmuga:**
Landako eta kostako eremuak azpiegitura eta zerbitzu egokiez hornitzea, hiri-inguruneko bizi-baldintza berdintsuak eta populazioari eusteko modukoak bermatzeko.

**6. helmuga:**
Lehen sektorea gaztetzea etorkizun-bermearekin.

**7. helmuga:**
Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea sustatzea.

## 5. HELMUGA

**Landako eta kostako eremuak azpiegitura eta zerbitzu egokiez hornitzea, hiri-inguruneko bizi-baldintza berdintsuak eta populazioari eusteko modukoak bermatzeko.**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- Lege Proiektua oraingo 10/1998 Legea, apirilaren 8koa, Landa Garapenari buruzkoa aldatzen duena.
- Euskadiko Landa Garapeneko Programa 2015-2020.

## EKINTZAK

**5.1.** Euskadiko lehen sektorearen eta landa-ingurunearen erronka nagusiei aurre egitea, besteren artean, landa-eremuak oinarrizko zerbitzuez hornitzea eta landa-inguruneko dibertsifikazioa eta enplegu-sorkuntza, Landa Garapeneko Osoa Programaren bitartez.

**5.2.** Landa-ingurunean hiri-ingurunearen antzeko maila lortzea zerbitzuetan eta gizarte-ongizatean Landagipuzkoa+ Programa bezalako ekintzen bitartez.

**5.3.** Banda zabalaren sarea poligono industrialetara eta Araba eta Gipuzkoako landa-eremuetara hedatzea.

**5.4.** Landa-garapeneko programak udal eta/edo eskualde-mailan lantzea.

**5.5.** Inbentarioak egitea eta analisiak lantzea, tokiko erakunde txikiagoetako azpiegiturenak eta zerbitzuenak.

**5.6.** Herritarrentzako arreta-sareko eskualde-bulego berriak Bizkaian (Bizkaia Gertu).

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

## 6. HELMUGA

**Lehen sektorea gaztetzea etorkizun-bermearekin.**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- Euskadiko Landa Garapeneko Programa 2015-2020.
- Nekazaritza Ekologikoko Euskal Plana.
- Euskadin Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plana.
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020.
- Lehen sektoreko belaunaldi-erreleborako plana, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Plana 2017-2025.

## EKINTZAK

**6.1.** Landa-inguruneari aktibo berriak gehitzea sektorearen zahartze progresiboari aurre egiteko, baita bertako lanbide-kualifikazioa eta enpresa-dinamismoa hobetzeko ere.

**6.2.** Laguntzak gehitzea enpresen lehia hobetzeko eta lehen sektorean sartzen diren gazteen kopurua gehitzeko.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

**7. HELMUGA**

## Nekazaritza ekologikoa eta bere industria eraldatzailea sustatzea.

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- Euskadiko Landa Garapeneko Programa 2015-2020.
- Nekazaritza Ekologikoko Euskal Plana.
- Euskadin Elikagaien Segurtasunaren arloko Ikerketa Koordinatzeko Plana.
- Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa 2020.
- Gasteizko Nekazaritzako Elikagaien Estrategiaren Udal Ekintza Plana 2017-2025.

**EKINTZAK**

**7.1.** Lehen sektorean berrikuntzaren eta lehiaren inguruko ideiak garatzen laguntzea.

**7.2.** Euskadin nekazaritza ekologikoko ekoizpen-jardunbideek eta -metodoek jarrai dezaten sustatzea, araudi komunitarioaren eta autonomikoaren arabera.

**7.3.** Landa-ingurunean garatutako jarduera ekonomikoa balioan jartzea funtsezko bektore gisa lurraldeko biodibertsitatea eta paisaiaren balioak mantentzeko.

**7.4.** Nekazaritzako elikagaien udal estrategiak garatzea.

**7.5.** Udal plangintzen ebazpenak egokitzea nekazaritzako lurzorua babesten dela bermatzeko eta berari lotutako lehen sektoreko jarduerak eta lehen eraldaketakoak bultzatzeko.

**7.6.** Hazi eta landare autoktonoen eta tokikoen bankuen kudeaketa eta dibertsifikazioa sustatzea.

**7.7.** Merkaturatze-zirkuitu motzak babestea.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

# 3. HELBURUA

## Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

**1**

HELMUGAK

**8. helmuga:**
Euskadin arreta soziosanitarioa bultzatzea eta bermatzea.

**19**

PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

**12**

EKINTZAK

**8. HELMUGA**

## Euskadin arreta soziosanitarioa bultzatzea eta bermatzea.

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- Euskadiko Osasun Plana 2020.
- EAEn Osasunean Ikertzeko eta Berriztatzeko 2020 Estrategia.
- Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Lehentasun Estrategikoak 2017-2020.
- Elikadura Osasungarriaren Estrategia.
- Euskadin Haurren Obesitatea Prebenitzeko Plana.
- Euskadiko Zainketa Aringarrien Plana 2020.
- Adikzioen EAEko Plana.
- Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia 2015-2020.
- Zaintzaileen Estatutua lurralde osorako, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bay of Biscay, Bay of Care - Zaintzen Lurraldea, Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bilboko Udaleko Osasun Plana.
- Bilboko Udaleko Elikagaien Ikuskaritza Plana.
- Bizitza osasungarrirako Bilbo Gazte Plana.
- Bilboko Udaleko Haur Plana.
- Donostiako Udaleko Osasun Plana 2019-2023 (proiektuan).
- Donostiako Udaleko Kirol Plan Estrategikoa. Plana: Kirolerako Hiri bat: Gogoeta Estrategikoa 2019-2022.
- Donostiako Adikzio Plana 2017-2021.
- Vitoria-Gasteizko Udaleko Osasun Plana.
- Gasteizko Gazte Plana.

**EKINTZAK**

**8.1.** Osasun-sistemarako sarbidea bultzatzea arreta-zerbitzu ez presentzialen eta interkontsulta ez presentzialen bitartez, pazienteei modu jarraitu batean arreta emateko eta programa espezifikoen bidez, eta egoitza-baliabideetan dauden pertsonei zuzendutako arreta egokitzea (adineko pertsonak, desgaitasuna dutenak...). Komunikazio zuzena Osakidetzako medikuaren eta Foru medikuaren artean, kontsulta espezializatuetara behar ez diren lekualdaketak saihesteko.

**8.2.** Pertsonak beren gaixotasuna autokudeatzeko tresnez hornitzea osasunaren zaintzan erantzunkidetasuna sustatzearren.

**8.3.** Osasun-laguntzan ekitatea babestea, genero-ikuspegian eta kolektibo ahulenetan arreta berezia jarrita: desgaitasuna eta menpekotasuna duten pertsonak, adimen-nahasmendua duten pertsonak, baztertuak eta babesik gabe geratzeko arriskuan dauden pertsonak, premia bereziak dituzten haurrak.

**8.4.** Osasunaren autokudeaketa sustatzen duten jarduerak, jarduera fisikoa eta elikadura osasungarria gizartean sustatuz, kirol-orientazioko zerbitzuak sortuz, zirkuitu osasungarrien sareak eratuz, osasunaren ikuspegi positibo bat sustatzen duten proiektuak garatuz (Euskadi Aktiboa; Zeu Ere Kirolari).

**8.5.** Ohitura osasungarriak sustatzea elikaduran, higienean eta kirolean oso aktiboak ez diren pertsonen artean, gazteen artean eta haurren artean, kaleko hezkuntza-programen bitartez eta 30 urtetik gorako emakumeei zuzendutako programen bitartez.

**8.6.** Euskadiko baliabide soziosanitarioen katalogoa lantzea, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta Eudelek batera sortutako Gobernantza Soziosanitarioaren Ereduaren esparruan.

**8.7.** Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei zuzendutako zainketa aringarrien laguntza eta laguntza espezifikoa sustatzea.

**8.8.** HIESa eta beste gaixotasun infekzioso batzuk prebenitzeko programak. Adikzioen prebentzioa eta tratamendua, ekintza areagotuz gazteen artean, adingabeak eta alkohola programen bitartez.

**8.9.** Udalen eta Hirugarren Sektorearen arteko lankidetza adikzioen arloan sentsibilizazioa eta prebentzioa sustatzeko.

**8.10.** Arreta sanitarioa eta kirurgikoa pobretutako eta gatazketan murgildutako herrialdeetatik etorri diren adingabeentzat, eta aldi baterako harrera-aldian daudenentzat. Udalerrien eta aldundien arteko lankidetza baliabideak sortzeko kolektibo espezifikoentzat, besteak beste, babes-dispositiboetatik irteten diren adingabeentzat (PIZTU Programa).

**8.11.** Osasunaren arloan ikerketa eta berrikuntza areagotzea. Ezagutzaren kudeaketa eta lankidetza sustatzea osasunaren arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekin.

**8.12.** Sektore biosanitarioa bultzatzea. Miramon Parke Teknologikoa sendotzea bere azalera optimizatzeko eta sektore bioteknologikoan puntako enpresen ezarpena eta zabalkuntza errazteko, berrikuntzaren eta ikerketa biomedikoaren polo bihur dadin.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

# 4. HELBURUA

## Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea

**2**
HELMUGAK

**15**
PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

**12**
EKINTZAK

**9. helmuga:**
Kalitateko hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta berritzailea sustatzea, hezkuntzarako sarbidean berdintasuna bermatuko duena.

**10. helmuga:**
Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea.

**9. HELMUGA**

**Kalitateko hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta berritzailea sustatzea, hezkuntzarako sarbidean berdintasuna bermatuko duena.**

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023.
- Euskadin Eskola Inklusiboa garatzeko Esparru Plana 2019-2022.
- Adimen Gaitasun Handiko Ikasleei Hezkuntza Arreta emateko Plana 2019-2022.
- 2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana.
- STEAM Euskadi Hezkuntza Estrategia, hezkuntza eta prestakuntza zientifikoa/teknikoa bultzatzeko hezkuntzaren etapa guztietan, eta bertan sartzeko eragile sozioekonomikoen lana.
- EAEko Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Estrategia (H)ABIAN 2030.
- 2030eko Euskadiren iraunkortasunerako Hezkuntza Estrategia.
- Lanbide Heziketari buruzko Euskal Legea.
- Lanbide Heziketako Euskal Plana.
- Unibertsitate Plana 2019-2022.
- Euskadiko Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategia.
- Haur eta Nerabeentzako II. Udal Plana 2018-2022 Vitoria-Gasteizko Udala.
- Bizikidetza eta Aniztasun Plana 2018-2020 Vitoria-Gasteizko Udala.

**EKINTZAK**

**9.1.** Kalitateko eskola berritzaile baten alde apustu egitea, bikaintasunaren bidetik aurrera egin eta modernizazio teknologikoa eta pluralismoa bultzatuko dituena irakaskuntzan, material didaktikoen eta curriculuma garatzeko baliabideen laguntza-programen bitartez. Zero eta hiru urte bitarteko haur-eskoletako titular diren tokiko korporazioei diru-laguntzak eman. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan barne-antolakuntza berritzeko proiektuak (HAUSPOA).

**9.2.** Ikastetxeetan oreka, kohesio sozial eta kulturartekotasun handiagoa eta bizikidetza hobeagoa lortzeko programak, bizikidetzaren eta giza eskubideen hezkuntza sustatuz, ikastetxeetan kanpo-ebaluazio desberdinetan lortutako emaitzetan hasiera mailan dauden ikasleen portzentajea jaisteko (HAMAIKA ESKU Programa). Eusko Jaurlaritza udalekin lankidetzan aritzea hezkuntza-ekitatea eta bizikidetza sustatu. Osabide Hezkuntzarako Partzuergoa erakunde desberdinen artean, gizarte-desabantailan dauden ikasleei (gutxiengo etnikokoak, immigranteen kolektiboetakoak, eta zailtasun sozioekonomiko larriak dituzten familietakoak) hezkuntzarako sarbidea, iraunkortasuna eta sustapena bermatu.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava foru aldundia diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

**9.3.** Ekimenak eta proiektuak, pertsona guztien interes kolektiboen, sozialen, ekonomikoen eta prestakuntzakoen alde lan egingo dutenak, solidaritatearen, askatasunaren, ekitatearen eta duintasunaren printzipioen barruan, kultura desberdinekiko errespetua, jasangarritasuna eta gizarte-justizia oinarritzat hartuta: Bizikasi ekimena ikastetxeak bizikidetza positiboko eta zero tolerantziako leku seguruak izaten laguntzeko jazarpen-egoera posibleen aurrean, irabazi asmorik ez duten erakundeei laguntzea, eskola-eremuan, ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak garatzeko, dibertsitateari erantzuteko programak eskola-orduetatik kanpo.

**9.4.** Politikak eta jarduerak garatzea pertsonen bizi-kalitatea, herritartasunarekiko konpromisoa eta demokrazia solidario eta partaidetzazko baten balioak bultzatuko dituztenak: Hezkuntza Premia Bereziei (EPB) eta (NEE) eta Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuei (HBSP) modu integral batean heldu. Irabazi asmorik ez duten erakundeei lagundu hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen inklusioa eta partaidetza sustatuko duten jarduerak garatzen, eskolaz kanpoko jardueretan, kirol eta aisiakoan. Programa terapeutikoak/hezigarriak garatu, transexualitate-egoeran dauden pertsonei laguntza integrala eman.

**9.5.** Eskolan eleaniztasuna bultzatzea: ikastetxeei laguntzea eskola-eremuan hizkuntza-proiektuak eta euskalduntzekoak garatzeko. Euskarazko material didaktiko digitala ekoizteko laguntza, euskarazko ikastaroak IRALE programako irakasleei. Irakasleen prestakuntza atzerriko hizkuntzan, hizkuntzak ikasteko bekak, hizkuntza-murgilketarako egonaldiak.

**9.6.** Kualifikazio eta birziklatze profesionala sustatzea, enpresekin, unibertsitate-zentroekin eta lanbide-heziketakoekin etengabe lankidetzan arituz, prestakuntza duala eta enpresetako eta erakundeetako praktikak bultzatuz.

**9.7.** Euskal unibertsitateen, administrazio publikoen, enpresen eta Euskadiko beste eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremanak bultzatzea prestakuntzan eta ezagutzaren transferentzian, Unibertsitatea-Enpresa Estrategia bultzatu. Bikaintasun Campusarekin lankidetzan aritu Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen esparruan. Lehenengo Unibertsitate + Enpresa Ikasgela martxan jartzea AICekin (Automotive Intelligent Center) adostua, Euskampus agregazio-eremua sustatzea Euskal Unibertsitate Sistemaren jarduerak hedatzeko eragile sozioekonomikoekin, eta Euskadiren nazioarteko proiekzioa sustatuko duten ikerketa-proiektu bereziak babestea.

**10. HELMUGA**

**Hezkuntza-azpiegiturak eraikitzea eta egokitzea.**

**PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK**

- Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Euskal Plana 2019-2023.
- Hezkuntza Zerbitzuaren Plan Estrategikoa, Vitoria-Gasteizko Udala.

**EKINTZAK**

**10.1.** Hezkuntza-azpiegitura berriak ematea eta daudenak zabaltzea (lehen eta bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketa) Azpiegiturak Hobetzeko Planaren esparruan. Itunpeko ikastetxeen sarean inbertsioak finantzatzea.

**10.2.** Azpiegituretarako sarbidea hobetzea, hezkuntza-sistemaren kalitatean aurrerapausoak ematen laguntzeko.

**10.3.** Eusko Jaurlaritzaren eta udalen arteko lankidetza-mekanismoak indartzea. Erakunde arteko beste lankidetza-tresna batzuetan aurrerapausoak ematea premiak detektatzeko eta baliabideak optimizatzeko: jabetzako eraikinetan obrak egiteko diren gastuak finantzatzea, Haur-eskolen kopurua gehitzea.

**10.4.** Azpiegiturak modernizatzea, komunikazioak, oztoporik gabeak eta seguruak, ahalbidetzeko aukera emango dutenak baliabide digitalei etekin handiagoa eta hobea ateratzeko, esparru-akordioa Euskadiko ikastetxeak material informatiko desberdinez hornitzeko, haiek instalatzeko eta/edo konfiguratzeko. Konektibitatea hobetu, azken belaunaldiko WIFI zerbitzu berriak ezarri eta hedatu, PREMIA azpiegitura modernizatu, telefono-lineen migrazioa IP Telefoniara.

**10.5.** Sarean ikasteko komunitate birtual baten eraikuntzan aurrerapausoak ematea ikastetxeetan: web semantikoa diseinatzea; IKASGUNEA hezkuntza-ataria diseinatzea eta ezartzea irakasleen, ikasleen eta familien arteko elkargunea izan dadin; ikasleek erabiltzeko izango diren gailu digitalen erosketa finantzatzea; ukipen-monitoreak erostea ikasgela-sistema digitala erabili ahal izateko derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza publikoaren maila guztietan.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

# 5. HELBURUA

## Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea

**4**
HELMUGAK

**15**
PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

**17**
EKINTZAK

**11. helmuga:**
Balioen aldaketa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

**12. helmuga:**
Erantzunkidetasuna sustatzea.

**13. helmuga:**
Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria errotik erauztea.

**14. helmuga:**
Lan-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea.

## 11. HELMUGA

**Balioen aldaketa sustatzea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.**

### MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

**Beharrezko eragileak:**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Euskal Plana.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana, Arabako Foru Aldundia.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Plana, Bizkaiko Foru Aldundia.
- 2/2015 Foru Araua emakumeen eta gizonen berdintasunerako Gipuzkoan.
- Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2019, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Udal Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako.
- Ordenantza emakumeen eta gizonen berdintasunerako, Bilboko Udala.

## EKINTZAK

**11.1.** Udal gobernu-ereduan berdintasuna ezartzea, zainketen ekonomia feminista, ahalduntze feminista eta indarkeria matxistarik gabeko hiria.

**11.2.** Udal plangintzan genero-ikuspegia txertatzea, genero-ikuspegia duten aurrekontuak, emakumearen gaitasunen ikuspegiari lotutako prozesuak gai hauetan: autonomia ekonomikoa, segurtasuna, ordezkaritza soziala eta politikoa, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna.

**11.3.** Kanpainak martxan jartzea herritarrak kontzientziatzeko eta berdintasun-politikak sustatzeko. Emakumeen Etxea sustatzea.

**11.4.** Gizartearen eta politikaren arloetan emakumeen partaidetza sustatzea ahalduntze-prozesuen bitartez.

**11.5.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea Bizkaian martxan jartzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren, udalerrien eta udalerriaz gaindiko beste erakunde batzuen arteko koordinazio-gunea izango dena.

## 12. HELMUGA

**Erantzunkidetasuna sustatzea.**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- Euskal Ituna Familien eta Haurren alde.
- Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana 2018-2022.
- I. Foru Plana kontziliazio erantzunkiderako Gipuzkoan.
- Haur eta Nerabeentzako Gasteizko II. Udal Plana 2018-2022.
- Udal programa gurasotasun positiboroako 2018-2022, Vitoria-Gasteizko Udala.

## EKINTZAK

**12.1.** Hurbileko sareak sortzea gizarte-babeserako.

**12.2.** Etxean eta familian erantzunkidetasun partekatua sustatzeko ekintzak.

**12.3.** Denbbora sarea bultzatzea denboraren erabilera berriak sustatzeko, denboraren kudeaketa hobeago bat eta kontziliazioa (lanekoa, familiakoa, pertsonala) errazteko konpromisoa hartua duten enpresen eta erakundeen lankidetza publiko/pribaturako espazio gisa.

## MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA

**Eragile traktorea:**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Beharrezko eragileak:**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

## 13. HELMUGA

**Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria errotik erauztea.**

## PLANAK / ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTUAK

- Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzen duena, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean prebentzioa eta erantzuna sendotzearren.
- Aurre! I. Foru Plana emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Gipuzkoan.

## EKINTZAK

**13.1.** Genero-indarkeriaren biktimei, haien seme-alabei eta haien kargu dauden pertsonei laguntzeko programak garatzea, informazioa eta orientazioa, larrialdi-egoeretan laguntzea, gizarte-laguntza espezializatua premiazkoak ez diren egoeretan, harrera udal pisuetan, haurrak babesteko baliabideak genero-indarkeriaren kasuetan (Onarpen programa; Aurre! plana).

**13.2.** Prebentzio-ekintzen programa bat sortzea eta Biktimei Laguntzeko Ertzaintzako Zuzendaritzarekin koordinatzea.

**13.3.** Hezkuntza- eta kontzientziazio-kanpainak tratu txarrari eta genero-indarkeriari buruz.

**13.4.** Zerbitzu espezializatua etxeko edo sexuagatiko indarkeriaren biktima diren emakumeei informatzeko eta laguntzeko – BLZ.

**13.5.** Interbentzio goiztiarreko programak garatzea, ebidentzian oinarrituak, babesik gabe dauden familiei eta adingabeei laguntzeko erabiltzen direnak (Incredible Years, Safe Care eta AVI programak).

